

(EUSKARA EUSKALDUNON HIZKUNTZA)

IRAKASKUNTZA OTE EUSKARAREN SALBAMENA?

Aurkezpena

Azken urte hauetan, ikastolak eta finkatuz joan zaizkigun garaian, euskaldunok sarri galdetu diogu geure buruari irakaskuntza ote den Euskal Herria benetan eta guztiz euskalduntzeko biderik egokiena, batez ere ikastolatan eta ikasketak eginiko zenbait gaztetxoren euskara traketsa eta urria ikusirik.

Bestalde, ikastetxe berezi horien alboan hor ditugu beste zenbait, bai *eskola nazionalak* bai *ikastetxe pribatuak*. Eta, jakina, oraingoz gutxiren batzuk bakarrik dute ikastolara joateko aukerarik. Nola finkatuko da, ba, horien euskara ikasia, gero eguneroko bizitzan ume erdaldunen artean murgildurik bizi beharrean aurkitzen baldin badira?

Egia esan, azken urte hauetan beste urrats aipagarri bat ere eman da Euskal Herrian zehar, hots, euskara *eskola nazional*etako umei irakasten hastea, eskola horietako euskararen irakaskuntza hiru maila desberdinetan antolatua izan baldin bada ere.

Oraingoz euskarako eskola horien ebaluaketa zehatzik egiteko beste urte igaro ez badira ere, ba dirudi ez direla beti, eskola horietan, hizkuntzaren irakaspenak eskatu ohi

dituen gutxienezko baldintzak betetzen. Bestalde, oraingoz ikasten ari diren %50 umek ez dute euskararik beraien irakasturteetan. Gutxiren batzu dira, ba, euskara ikasteko bidetan!

Euskara irakasten den ikastetxeetan ere, astero asti gutxiegi dedikatzen delako, edo irakasleak talde handiegiatan lan egin beharrean aurkitzen direlako (40ko taldeak eta dituzte), edo eta zenbait tokitan irakaskuntza hori aurkako giro batetan egina delako... lan horretan ari diren zenbait irakasle lur jota ikusi izan ditut horretaz hitz egiterakoan. Askok berehala utziko luteke lanpostua, beste nonbait ezer egiteko biderik ikusiko balute.

Ez omen dago, astean hiru ordu bakarrik dituzten kasuetan, behintzat, abesti batzu eta esaera egin batzu irakasteko aukera baino. Irakasle berezien lana alperrezko lana bihurtu omen da! Talde askoren ardura hartzeaz gainera, ordu gutxi eta talde handiegiak izateari erantzun behar omen diote.

Errealitate honek hainbat galdera sortu dizkit. Nola joka genezake, jokatu ere, irakaskuntza benetan Euskal Herriko umeak (ume guztiak, noski, eta ez pribilejiatu batzu bakarrik) euskalduntzeko bide izan dadin? Nolako plangintzak asmatu eta jarri beharko ete ditugu martxan? Zer eskatu beharko genieke ume horien gurasoei eta? Orain daramatzagun bideek ekarriko ete dizkigute egitan itxaron ditugun fruituak?

Oraingo bide hauek, zenbait tokitan halako ondorio kaskarrak dituztela, ez ote dute ikaragarritzko frustazioa sortuko gurasoengan, umeengan, irakasleengan, gizartearengan? Ez ete gaituzte euskara ikasezina dela edo pentsatzera bultzatuko? Nolako baldintzak jarri beharko, ba, halakorik gerta ez dadin? Une honetan egiten ari garen inbertsio horiek ematen ete dute behar adineko fruiturik?

Kezka larri guzti hauek bultzaturik, gure inguruetan egin diren hizkuntz-irakaskuntzako esperientziak biltzen edo hasi naiz, ea besteek nola jokatu izan duten ikusteak argirik edo ematen digun iputargien munduan ibil ez gaitezen.

1. — Bilboko «El Colegio Alemán, San Bonifacio»
ikastetxeko eskarmentua

Aipaturiko hizkuntz-irakaskuntza alorretan eginiko eskarmentuak bildu nahirik Bilbon hain ospetsua dugun, ikastetxe horretako zuzendariarengana jo nuen, beraien eskarmentua jaso eta aztertu ondoren, euskararen irakaskuntzarako ezer ikastekorik baldin bazuen, hartzeko asmotan.

Telefonoz elkar ikusteko eguna eta elkarrizketarako gaia jarri ondoren, jarraian eskeintzen dizuedan elkarrizketa izan genuen. Erdaraz egina izan zenez eta eskus jaso, gainera, eskeintzen diren hitzak ez dituzue hitzez hitz esandakoak.

Hala, ba, aurtengo maiatzeko 27ko arratsaldeko 4,30etan han hasi ginen hizketan mahai baten inguruan. Elkar agurtu ondoren honela hasi zitzaidan:

Zuzendariak. — Irakurri ditut astiro zure galderak. Asko direnez zatika aztertzea komeni zaigu. Hori dela eta, hasera haseratik zerbait argitu nahi dizut, elkarrizketa hau bide zuzenetik joan dadin eta nire erantzunak ondo ulertuak izateko. Lehen eta behin, zure asmoa ikastoletarako lan bat egitea denez, zein den gure ikastetxe honen helburua argi jartzea behar dugu.

Bestarik uste bazenu ere, gure asmoetan ez da inoiz egon ikasle elebidunak egiterik. Gure ikastetxean ikasten duten ikasleen hizkuntza nagusia eta egunerokoa gaztelera da. Hori dela eta, nahiz eta txartelak eta alemanieraz jarriak agertu ikastetxeko bazterretan, atsedenaldira eta jolastaldietan ikasleak gaztelera mintzatzen dira. Horrela, ikasleek alemaniera psikologikoki irakaskuntzako hizkuntzaz identifikatzen dute. Alemaniera, ba, irakaskuntzako, klase barruko hizkuntza dute.

Nik. — Hori hala baldin bada ere, ikasleek, karrera bukatzerakoan parra-parra erabiltzen dute alemaniera, ezta? Nola antolaturik duzue irakaskuntza hori lortu ahal izateko?

Zuz. — Hasera batetan, hizkuntza intuitiboki irakasten diegu, haurtzaindegian hasita. Horrela, gutxi gora-behera 8 urte bete arte. Adin honetara heltzean ikasleak ikasia duen

hizkuntza hori erreflesiboki sakontzen hasten gara. Une honetan, sortzen zaizkigu arazorik handienak: Ikasleek ikasgai sakonagoak ikasten hasi behar eta batzuk ezin egin alemanieraz behar den bezala, oraindik ez dutelako nahiko hizkuntz-trebetasun. Zera ikusi izan dugu: batzu, hizkuntza nahiko menperaturik ez dutelako, matematiketan eta klaseko martxa jarraitu ezinda aurkitzen direla. Arazo horri, inor ikastetxetik kanpora bota gabe erantzuteko, pareko erdal talde bat jartzea erabaki genuen. Orain, ba, zuzendua dugu arazoa, alemanieraz jarraitu ezin dutenak beste gaztelarazko taldera aldatuz.

Nik. — Zer? Bi motako ikasleak dituzue ala?

Zuz. — Bai. Gaur egun bi plangintza desberdin ditugu batera martxan. Bata, Haurtzaindegian hasi eta COU bukatu arte den-dena alemaniera hutsez pentsatua. Talde honek ikasketak guztiak alemanieraz ematen ditu. Gaztelera, asignatura baino ez da; inoiz ez irakaskuntzako hizkuntza. Bestea, orain-tsuago hasia dugu, eta nire ustez egokiagoa behar bada, nahiz eta beste maila batetako oztopoak ekarri. Plangintza hau O.H.O.-ko 5. urtean hasten dugu. Sarrerako, O.H.O.-ko 4. urtean zehar, alemanierazko klaseak ematen dizkiegu ikastetxera sartzeko gogoia dutenei, horrela prestatuz joateko eta ea hizkuntzetarako behar adineko erreztasunik duten ala ez ikusteko. Ez legoke ongi norbait ezin duen bidetik bultzatzea! Hauek, 5. urtean ikastetxera sartu eta poliki-poliki ikasketak, alemaniera menperatuz doazen neurrian, alemanieraz ematera bultzatzen ditugu, eman dizudan esku-liburuxkan ikusiko duzuez.

Nik. — Txarto ulertu ez badizut, behintzat, aipatu berri duzun plangintza berri honek, nahiz eta bere eragozpen handiak izan, besteak baino gehiago asetzen zaitu. Argituko zenidake pixkatxo bat gehiago zer dela eta den hala?

Zuz. — Bai pozik ere. Lehenengo bidetik abiatu, arazo sendoak genituen zenbait ikasgai sakon alemanieraz irakasterakoan. Sarritan, inguruaren eragipenez edo zenbait ikaslek ez zuten lehen urteetan nahiko alemaniera ikasten eta gero eskolak alemaniera hutsez ematerakoan jarraitu ezinda aurkitzen ziren gai sakonak agertzerakoan.

Bestalde, hizkuntz alorrean, bigarren bide hori ongi programaturik, ahalegin gutxiagoz ondorio berdintsuak lortu ditugu. Esan bezala, piskanaka gai guztiak alemanieraz ematera jotzen dugu eta azken urteetan ia dena alemanieraz ematea lortu dugu.

Hala ere, plangintza hau, H.O.H.-ko boskarren urtean hastekoa, aurrera eramateko oztoporik handiena ikasle falta izaten dugu. Hemen, Espainian, Alemanian eta Europako herri askotan ez bezala, umeei ikasketa guztiak ikastetxe ber-berean egin ohi dituzte eta oso arraro egiten da batetik bestera aldatzea. Hori dela eta, bigarren bideko taldeak osatu ezinda ibiltzen gara. Alemanian eta, ostera, normalki O.H.O.-ko bigarren mailara heltzerakoan ikastetxea aldatu egiten da.

Hemen erabili ohi den bide horrek alde onak eta txarrak ditu umearengan. Alemanian eta, ikastetxeak ez du halako eragipen handirik umeen heziketan, toki bakar batetan ez delako egiten. Hemen, alderantziz, karrera osoa leku berean egitean ikastetxeak izugarritzko eragipena sortzen du umeengan.

Nik. — Baina bigarren hizkuntzaren irakasketa hain berandu hasi ezkeror, ez zaie zailago bihurtzen alemaniera ikastea?

Zuz. — Nire ustez umeei gogotsuago eta lasaiago egiten dute O.H.O.-ko sarrera ama-hizkuntzan. Gero, jakina, guk dugun bezalako plangintza aurrera ateratzeko, integraketa piskana-piskana egin behar. Honela, eskuan duzun plangintza-txartelean ikusten denez O.H.O.-ko 5. ikasturtean astero 10 ordu alemaniera ikasteko izendatzeaz gainera, gai erraz batzu ere alemanieraz jasotzen ditu ikasleak, hots, *musika, artea, kirolak*, hauek ez baitute hizkuntzaren erabilera handirik behar. Bide hau hasten dutenek zuzenago ikasten dute hizkuntza txikitik intuitiboki ikasterakoan hartzen diren ohitura txarrik gabe.

Nik. — Plangintza-txartelean ordu ugari dituzue alemaniera ikasteari eskeiniak. Nola eratua duzue, ordu horietako bigarren hizkuntzaren irakaskuntza hori?

Zuz. — Gure ikastetxe honetako geletako ikasle kopururik ugariena 31koa da. Hizkuntza irakasteko, talde horiek bikoiztu egiten ditugu 15eko taldetan. Zuk dakizunez hizkuntza ezin da talde handietan irakatsi. Horretaz aparte hizkuntz-laborategia ere sarri erabiltzen dugu, hizkuntzaren irakaskuntza, berez nahiko lan neketsua, ahalik eta egokien egiteko. Gaur egunez hizkuntzak irakasteko erabili ohi diren tresneria eta materiale guztiak erabiltzen ditugu. Zuok, euskaldunok ere honetaz zenbait materiale interesgarri eta aurrerakoi dituzue eginak. Aipagarriak dira ikastoletan eta erabili ohi dituzuen zenbait gauza. Guk ere kontutan hartu ditugu.

Nik. — Zuen ikastetxe hau, hemen, gaztelera eta euskara egiten diren hurralde batetan kokatua denez, zalantzarik gabé inguruaren eragozpenak jasan beharrean izango zarete, ez da?

Zuz. — Zalantzarik ez, inguruak hainbatetan taxutzen du hizkuntzaren irakaskuntza. Hizkuntza, etxean edo inguruetako gizarteko harremanetan erabilia eta entzuna denean askoz ere arinago eta sendoago finkatzen da ikaslearengan. Hala ere ez dugu aparteko eragozpenik ikusi. Ikastetxe hau haseratik kontrako inguru hori kontutan harturik antolatua dugu. Hori dela eta, alemanieraren irakaspenera errazteko eta sendotzeko hainbat alor zaindu eta bultzatu ditugu. Hala nola:

- Klase bakoitzean ikasleek biblioteka bat dute.
- Zenbait arratsaldetan alemanierazko pelikulak ematen dizkiegu.
- Teatro taldeak eta saioak bultzatzen ditugu. Alemanierazko taldeak ekarriz.
- Jaiak, bereziki ospatzen ditugu. Hots, San Nicolas eguna, Ihauteriak...
- Larunbatetan ere klaseak ditugu asteburuetako etendura laburtzeko.

Nik. — A, bai? Horrek ez du gurasoengandiko protestarik sortzen?

Zuz. — Protesta, protestarik ez... aurrez baitakite zertara konprometitzen diren. Aldatu edo kendu nahia, bai! Oso egun desegokia bihurtu da gaur egunez. Umeei gogor egiten zaie

eta gurasoei ere bai. Dena dela, ezin dugu honetan amorerik eman, umeak asteburuetan erdal giroan murgilduta izanik, asko galtzen dute eta. Arazo hau sarri aztertu dugu konponbide bila, baina ez dugu beste irtenbiderik aurkitu. Nahitaezkoak ikusten ditugu larunbatetako eskolok.

Nik. — Hori horrela, izugarrizko kaltea ekarriko dizkiete ikasleei hizkuntzaren alorrean udako oporrek, ezta?

Zuz. — Jakina! Espainian irakaskuntza desegoki antolatua dago. Udan etendura luzeegia gertatzen da. Eta hau gai guztientzat kaltegarri baldin bada, askoz ere kaltegarriagoa hizkuntzarentzat. Honela zenbait ahalegin erdi-alperrik galtzen dira. Azken batetan, umeei kalte handia egiten zaiela uste dut. Udako oporrak laburtu egin beharko lirateke. Ikasturte berria hasterakoan, hilabete inguru girotzen eta mar-txa lortzen joaten zaigu. Oso desegokia dugu, bai, hemengo ikasturte barneko oporren banaketa. Egia esan, ikasturteko lautik bat alperrik galtzen da. Hau inoiz ulertu ezin izan du-dan zerbait duzu.

Nik. — Udan, jakingo duzun bezala euskaldunon artean, aipatu berri duzun etendura hori nolabait gutxitzeko edo, zenbait ikastoletan umeak udalekuetara eta bidaltzen dituzte. Egiten duzue zuek balako antzerako ezer?

Zuz. — Hemen, bertan ez. Ikasle batzu Alemaniako udalekuetara bidaltzen ditugu baina gutxiren batzu izaten dira. Gaur egun joan-etorriak eta asko kostatzen dira eta guraso gehienek ezin izaten dituzte seme-alabak hara bidali. Hemen bertan, komenigarri baldin bada ere, ezin dugu halakorik egin, irakasle gehienok hango funtzionariak izanik, udan hara joan beharrean aurkitzen gara eta.

Dena dela, zuk esan duzun hori ezaguna dut eta aurrerapen txalogarria iruditzen zait. Guk, —ez dakit nola jokutzen duzuen zuek hemen— Alemaniara bidaltzeko gutxienezko adina eskatzen diegu (12-15 urte). ongi baliatzeko sasoiari joan daitezten.

Nik. — Etxeko giroak ere garrantzi handia izaten du hizkuntza ikasterakoan. Zuen ikasleon artean asko dira guraso alemanak dituztenak?

Zuz. — Hor, kalean uste den baino gutxiago, zoritxarrez. Guztira %15 etxean mintzatzen direnetarikoak eta %10 sendiko aurretikoren bat alemana dutenak. Giro hauetan bizi direnek, besteek baino erraztasun handiagoa erakusten dute gehienetan, alemaniera ikasterakoan.

Nik. — Hemen, ikastetxe honetan irakasten duzuen irakaskuntza homologatua duzue?

Zuz. — Bai, oso-osoan. Irakaskuntza osoa ematen dugu: Haurtzaindegian hasi eta COU bukatzeraino. Ikasleek oso ongi prestatuak bukatzen dute. Ikasgelako ikasle gutxi izateak asko laguntzen du. Hemen ikasketak egin dituenak, nahiz hemengo Unibertsitateetan nahiz Alemaniakoetan jarrai dezake ikasten.

Nik. — Zenbaterainoko hizkuntz-ezaguera lortzen dute?

Zuz. — Gaztelanieraz gainera, alemaniera nahiz idatzia nahiz mintzatua ongi menperatuz bukatzen dute. Literatura osoa ere ikasten dute. Alemaniatic, gaztelararik ez dakien aztertzaille bat etortzen da azterketak egitera, eta orain arte ongi konpondu izan dira alemaniera bakarrik erabiliz. Zenbaitetik Alemaniako, bertakoek baino alemaniera hobeki menperatuz bukatzen dituzte ikasketak.

Nik. — Elkarrizketa hau prestatzeko eman nizun aurre-paperetan beste gai bat ere aipatzen nizun, hots, ea euskarari tokirik egin diozuen ikastetxe honetan. Zer diostazu honetaz?

Zuz. — Honetaz hitz egina dut Etxenike Jaunarekin gure egoera azaldu eta nola jokatu ikusteko. Oraingoz ezin dugu nahitaez sartu gure plangintzan, gaztelera eta alemaniera menperatzea lortzeaz gainera ikasle guztiek, O.H.O.-ko 5.ean hasi eta ingelesa ere ikasi behar dutelako. Bestalde, giza-zientzietakoek O.H.O.-ko 7.ean hasita latin ere ikasten dute. Beraz, ikusten duzunez, hizkuntz-alorra bete-betea dugu.

Hala ere ez ditugu eskuak garbitu nahi. Gure ustez, Euskal Herriko gazte guztiek euskara ikasi beharra dute, herriko bizitzan integratzeko biderik egokiena baita. Hori dela eta,

benetako aukerak eskeini dizkiegu hala egin nahi duten ikasleei, O.H.O.-ko 7.ean hasita euskara ikas dezaten.

Nik. — Zer dela eta sasoi horretan hasita eta ez lehenago?

Zuz. — Lehenago egitea, behar bada, ikasleei zama astunegia ezartzea litzatekelako, aurreko urte bietan batez ere alemaniera ikasi beharra baitute. Bestalde, ordurako hizkuntzak ikasteko ohitura ere jasoa dutenez, ahalegin gutxiago eginik askoz ere gehiago aurreratzen dute. Gure euskarako klaseok indartuz eta ugarituz doaz.

Nik. — Beno, erantzunak dituzu aurrez jakinerazitako nire galderak. Hala ere, hemen zuen plangintzan agertzen den zerbaiten zergatiak galdetu nahi dizkizut, hots, ea zergatik ematen dituen, plangintzako bigarren taldeak, alemaniera menperatua duen ikasturteetan (azken urteetan) gai batzu, *erlijioa, biologia, natur-zientziak, gazteleraz.*


Zuz. — Ba du garrantzirik galdera horrek, egin ere, sarritan, astakeria handiak egiten dira eta. Gure ustez, ezin da umea bere barne-bizitzan bortzatu, bere berezko jariatasuna itoz. Umea askatasunean hezten saiatu behar dugu. Hori dela eta, nolabait umearen barne-munduari loturik diren gaiak haren ama-hizkuntzan erabiltzen ditugu, ume hori giro aske eta atsegintsu batetan haz dadin. Nahitaezkoa du umeak, nor-tasunaren heldutasunera heltzeko, poztasunezko eta lasaitasunezko giro hori. Beraz *erlijioa* eta *giza-zientziak* ama-hizkuntzan jasotzen dituzte, ezagupen huts bihur ez daitezen, baizik eta sentimendu osoz beregana ditzaten.

Elkarrizketa horretan, honako hain jakingarri ez diren beste zenbait eguneroko gauza ere aipatu genituen, baina ezin denak hemen jarri! Beste noizbait luzarago ekiteko itxaropenetan agurtu genuen elkar.

2. — Ikastetxeko irakaskuntza-plangintzaren aurkezpen grafikoa

Esan bezala, ikastetxe horretan, orain, Plangintza bikoitza daramate: alemanieraz eta gazteleraz. Lehenengoa txiki-txikitatik hasita, hots, haurtzaindegian hasita. Bestea, O.H.O.-

ko erdi mailan hasita, hots, 10 urtetako umeekin hasita. Horretarako, 9 urtetakoei sarrerako ikastaroa egiten die, bide horretatik ekiteko gai diren ala ez ikusteko. Talde desberdin horiek poliki-poliki bat egitera helduko dira, ondoko kuadro grafikoan ikusten denez:



OHARRA. — Ikusten denez, O.H.O.-can hiru talde paralelo kurtsoa dituzte: Bi Haurtzaindegian hasitakoak alemaniera hutsez eta bat 5. kurtsoan hasitakoa, gaztelaraz. Hiru talde horiek bitan batuko dira B.U.P.-C.O.U. egiterakoan, nahiz Giza-zientziatako bidea nahiz Zientziatako hartzen dutelarik ikasleek.

Irakaskuntzako azken maila hau (BUP-COU) egiten ez dutenek ere alemaniera ongi menperaturik bukatzen dituzte O.H.O.-eko ikasketak.

O. H. O.

J = Gaztelera

	5		6		7			8		
	Al.	Gaz.	Al.	Gaz.	Al.	Bet.	Gaz.	Al.	Bet.	Gaz.
ERLUJIOA	2	2]	2	2]	2		2]	2		2]
ALEMANIERA	6	10	8	8	5		8	5		7
GAZTELERA	7]	4]	7]	4]		4]			4]	
INGELESIA	4		4	5	4		5	4		5
HISTORIA		3]	2]	2]		2]			2]	
NATUR ZIENTZIAK	3				2		2]	2		2]
MATEMATIKAK	5	5]	4	4]		4			4	
BIOLOGIA	2	2]	2	2]	2		2]	2		2]
FISIKA						2			2	
MUSIKA	2	2	2	2		2			2	
ARTE-HEZIKETA	2	2	2	2		2			2	
GIZA-ZIENTZIAK			2]	2]		2]			2]	
KIROLAK	2	2	2	2		2			2	
BETEGARRIAK		1		1						
Ikasle Aterrianak	35		35		35	(20)		35	(20)	
Ikasle Erdaldunak		33		36			39			38

Al. = Aterak/teratortalden.
 Gaz. = Gazte/erazko taldea.
 Bat. = Bateko emaitza ditzuten
 estohle guztiak.

	9		10		11				12	
	Al.	Bat.	Al.	Bat.	Zentrik	Gize-Zentrik	Zentrik	Gize-Zentrik	Al.	Bat.
ERLUIOA	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
ALEMANIERA	4	5	5	5	5	5	5	5	5	5
GAZTELETRA	5	5	5	5	4	4	4	4	3	4
INGELESA	4	4	4	4	3	3	3	3	3	3
LATINA/FRAWTSESIA	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4
HISTORIA	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
NATUR ZIENTZIAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
FILOSOFIA					2	2	2	2	2	2
LITERATURA										
MATEMATIKA	4	4	4	4	5	5	5	5	5	5
FISIKA	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
KIMIKA	2	2	2	2	3	3	3	3	3	3
BILOGIA	2	2	2	2			3	3		
MUSIKA	1	1	1	1	2	2	2	2	2	2
ARTE-HEZKETA	1	1	1	1	2	2	2	2	2	2
KIROLAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
GIZA ZIENTZIAK					2	2	2	2	2	2
BETEGARRIAK					2	2	2	2	2	2
Alemanoz	37	40	40	41	39	39	34	34	37	37
Gazteletraz							40	40		
BATERA	29	36	36	34	34	35	31	31	35	35

Grafikoaren azalpenak

1. — Gaztelerazko taldeak lehen kurtsoetik hasita (hau da, O.H.O.-ko bostgarren kurtsoetik aurrera) 10 hizkuntz-ordu alemaniera ikasteko izateaz gainera, hiru gai alemanieraz ditu: *Musika, Arte-Heziketa eta Kirolak*. Hain zuzen hizkuntzaren erabilketa urria eskatzen duten asignaturak.

2. — Gaztelerazko taldea, piskanaka piskanaka gaiak alemanieraz hartzera joaten da. Hona hemen nola egiten den aldatze hori:

- a) 5. eta 6. kurtsoetan, alemaniera hizkuntzaz gainera, 6 ordu alemanieraz.
- b) 7. eta 8. kurtsoetan, alemaniera hizkuntzaz gainera, 12 ordu alemanieraz.
- c) 8. eta 10. kurtsoetan, alemaniera hizkuntzaz gainera, 24 ordu alemanieraz.
- d) 11. eta 12. kurtsoetan, alemaniera hizkuntzaz gainera, 21 ordu alemanieraz.

3. — Alemanieraren irakaskuntza-orduak ere kontutan hartzekoak dira ebaluaketa zehatza egiterakoan, umea 4 urtetan alemanieraren jabe egiten baita. Urtero 32 astebete jota, ondoko ordu-banaketa agertzen zaigu:

- a) 5. kurtsoan, astero 10 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 320 ordu
 - b) 6. kurtsoan, astero 8 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 256 ordu
 - c) 7. kurtsoan, astero 8 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 256 ordu
 - d) 8. kurtsoan, astero 7 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 224 ordu
- O.H.O.eko 4 urtetan ... GUZTIRA ... = 1.056 ordu
- a) 9. kurtsoan, astero 5 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 160 ordu
 - b) 10. kurtsoan, astero 5 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 160 ordu

- c) 11. kurtsoan, astero 5 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 160 ordu
- d) 12. kurtsoan, astero 5 ordu
(15 ikasleko taldetan) x 32 aste = 160 ordu
- BUP/COU GUZTIRA = 640 ordu

4. — Esan den bezala, Gaztelerako taldeak beti gazteleraz emango ditu nolabait barne-bizitzarekin zerikusi berezia duten gaiak:

Erljioa: 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11. kurtsoetan.

Historia: 5, 6, 7, 8. kurtsoetan (alemanieraz, 9, 10, 11 eta 12. kurtsoetan).

Biologia: 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 12. kurtsoetan.

Filosofia: 11 eta 12. kurtsoetan.

Natur-zientziak: 5, 6, 7, 8 eta 11. kurtsoetan.

Giza-zientziak: 6, 7, 8, 10 eta 11. kurtsoetan.

5. — Kontutan hartzekoak dira, alemanierazko taldeak, alemaniera sakontzeko izendatuak dituen hizkuntz-orduak ere, hain zuzen 5 ordu astero. Gaztelera nahiz inglesa irakasterakoan ere, gutxienez 4 ordu astero erabiliko dituzte, ordu gutxiago erabiliz ezin dela behar bezala hizkuntzarik irakatsi aditzera eman.

3. — Plangintza horren ondorio nagusienak

Aurreko elkarrizketa eta kuadroetan jasotako datu guzti horiek aurrez aurre jartzerakoan zenbait galdera egin diezazkiegula euskaldunok geure buruei iruditu zait. Lortu ere, ikastetxe honetan, plangintza egoki eta neurtu baten bidez, ikasleak, epe labur batetan, eta bestelako ikasketak guztiak ere egiten dituztelarik, alemaniera erraztasunez mintzatzea eta idaztea lortzen baitute.

Hori dela eta, bide berri hori, nahiko berezia baldin bada ere (sartzerakoan nolabaiteko ikasle hautaketa egiten dute) kontutan hartzekoa dugula uste izan dut, gure arteko umeak nola euskaldun egin asmatu ezinda edo ari garen une hone-

tan. Ikastetxe horretan daramaten plangintza zehatz azter-
tzeak, euskararen alde egiten diharduna bideratzeko argia es-
keiniko digula eta nauzue.

Beraz, jarraian aipatzen ditudan beharrirenak azpima-
rratuko nituzke, esandako guztiaren agergarri bezala:

1. — *Ahaleginak kontzentratu beharra*: Ikastetxe horretan
duten plangintza, hizkuntzaren irakaskuntza epe labur bate-
tan burutzeko asmoz eginā dugu, hain zuzen, ahalik eta eten-
durarik gutxien izan dadin. Hizkuntzaren irakasteari 8 urte-
tan zehar 4/5 ordu dedikatuz jokatu beharrean, 4 urtetan 8
ordu astero emanez egiteko edo pentsatua. Horrela, jarraiko
lana eginez, askoz ere ondorio hobeak ateratzen omen dira.
Jakina, halako plangintza martxan jartzeak umeengan ahale-
gin handia, beraz gertakizun egokia ere bai, suposatzen du
eta beraien eritziz 9 urteko umeekin edo hasi beharko da.
Kontzentraziozko bide hau oso erabilia dugu, bestalde, adi-
nekoak euskalduntzarekoan eta oso ondorio onak ekarri ditu,
hizkuntzaren irakaskuntzan kalterik handiena etendurak sor-
tzen baitute.

2. — *Talde txikietan jokatu beharra*: Hizkuntza irakas-
teak dinamika bizia eskatzen du eta amai gabeko elkarrizketa
giroa sortzea, zerbait bizia egitekotan, behintzat. Hori dela
eta ikasle/irakasleen arteko korrelazioa ere ongi zaindu behar-
ko da. Ikastetxe honetan, hizkuntzako klaseetan, hamaboste-
lako taldetan lan egiten dute, horrela bakarrik irakas daitekee-
lako hizkuntza. Hau ere kontutan izan zeharko dugu, ba, eus-
kararen aldeko plangintzak egiterakoan, erdi-alperrezko ahale-
ginetan astia galdu nahi ezbadugu. Sarritan ahalegin handie-
nak hankamotz geratzen zaizkigu baldintza egokietan ez egi-
tearren.

3. — *Hizkuntza-ingurua zaindu beharra*: Bestalde, hizkun-
tzaren irakaskuntzan inguruak duen eragipen izugarria azpi-
marratzen dute. Hori dela eta, inguru hori, ahal duten neu-
rrian, zenbait ekintza desberdin antolatuz, hizkuntzarentzat
lagumbide egiten saiatzen dira. Guk ere, ezin izango dugu era-
gipen hori ahaztu hizkuntzaren bizitza begi-belarrietako ingu-
ru osoari loturik egiten da eta. Horregatik beharrezko izango

dugu gure ikastetxeetako inguru hori nolabait hizkuntzaren zerbitzuan jartzea.

4.— *Umeen iniziatibak onartu beharra*: Zuzen-zuzenean euskararen irakaskuntzari loturik ez badator ere, jakingarria iruditzen zait, hemen beste zerbait azpimarratzea, hots, umearen barne-bizitzari loturik diren alorretan ikasgaiak ama-hizkuntzan emateko egiten duten proposamena. Ikasgai berezi horiek gazteleraz erabiltzean ez dute alemanieraren ezaguerarako eragozpenik ikusten. Horrek, nolabait, umeengan lasaitasuna eta jariotasuna bultzatzen ditu eta hizkuntzaren irakaskuntzarako ere laguntza eskeintzen, ume horiek ikastetxean inolako bortzaketarik gabe, aske sentitzen direlako. Hlau ere, irakaskuntzaren pedagogia alorrean aztertzeke zerbait dugula uste dut.

5.— *Tokian tokiko erantzuna eman beharra*: Begi bistan nabari denez, ikastetxe hori alemanierazko girorik ez dagoen leku batetan umei alemaniera irakasteko asmatua dugu. Beraz, beraiek, alemaniera eskola-hizkuntzat hartzen dute. Euskararako plangintzak egiterakoan, euskararik egiten ez den lurraldeetarako bihur daiteke baliagarri. Euskara egunero bizitzan erabiltzen den lurraldeetan ikastetxe horretan bertan, Haurtzaindegian hasirik daramaten beste alemaniera hutsezko plangintzaren antzerako zerbait egin beharko da, ba. Hemen proposatu nahi dena, ba, Lurralde erdaldunetako umeak euskalduntzeko bide egokiena bilatzea litzateke.

Aplikazioak

1.— *Irakaskuntza antolatzean*: Gure artean euskararen irakaskuntzan erabili ohi diren eredu desberdinei aplikazioa eginez, honelako hauek esango nituzke:

a) «D» eredu: *Irakaskuntza osoa euskaraz* (Ikastoletan eta ikastetxe elebidunetan daramatena). Eredu honek ongi erabili ezker, umeak guztiz euskaldun egiteko gai izan behar du. Noizbait halakorik gertatzen ez bada, euskararen irakaskuntza behar bezala antolaturik ez delako egiten edo izango da. Behar bada, euskararen irakasketa talde handiegitan

egiten delako edo. Hori dela eta, plangintzaren lehen urteetan kontu handia hartu beharko da, falta egingo balu talde txikietan lan eginez, umeek hizkuntzaren ezaguera ona lor dezaten eta gero ikasgaiak erraztasunez euskaraz jaso.

b) «B» eredua: *Irakaskuntza erdi euskaraz/erdi gazteleraz* (Ikastetxe elebidunetan daramatena). Eredu hau ere, berez, aurrera ongi eramanez baliagarri izan daiteke umeak euskaldun egiteko. Kasu honetan ere euskararen irakaskuntzarako plangintza zehatzak egin beharra dugu. Ez da nahiko egun erdi euskaraz egitea. Euskararen irakaskuntza zehatz antolaturik progresiboki aurrera eraman beharko da. Eredu honetan, Eskolaurrean eta O.H.O.-ko 1. aldian ikasgaiak euskaraz eta gazteleraz irakasten baldin badira ere, gutxienez O.H.O.-ko 3. aldian euskara hutsez ematera jo beharko da. Zer esanik ez eredu honetako umei ere euskara talde txikietan banandurik eta intentsiboki irakatsi beharko zaiela.

c) «A» eredua: *Euskara ikasgai huts dutenak* daramate. Hau dugu eredurik ezdabaidagarriena. Nik neuk ez dut eredu honetan fidantzarik eta besterik gabe kendu edo aldatu egingo nuke. Oso zaila edo eta eginezina ikusten dut bide honetatik ekinez umeak inoiz euskalduntzea. Astero 3/5 ordu 30/40ko taldeetan euskara irakatsiz oso nekez lor daiteke inor inoiz euskalduntzea. Euskarari eskeinitako ordu guzti horiek azken urteetan jarriko nituzke, plangintza zehatza eginez. Urte horietan, bestelako ikasgaiak gazteleraz emanda ere, plangintza egoki baten bidez lor daiteke umeak euskalduntzea. Jarraiko banaketa edo egingo nuke:

OHO-ko 4. kurtsoan	10 ordu astero x 32 aste urtero	320 ordu
OHO-ko 5. kurtsoan	8 ordu astero x 32 aste urtero	256 ordu
OHO-ko 6. kurtsoan	8 ordu astero x 32 aste urtero	256 ordu
OHO-ko 7. kurtsoan	7 ordu astero x 32 aste urtero	224 ordu
OHO-ko 8. kurtsoan	7 ordu astero x 32 aste urtero	224 ordu

5 urtetan GUZTIRA 1.280 ordu

Euskara, erdararen pare-pareko hizkuntza ofiziala baldin badugu, eta Madrileko Ministeritzaren aginduz gaztelerari as-

tero gutxienez bost ordu eskeini behar badizkiogu, euskarari ere, gutxienez beste hainbeste eskeini beharko dizkiogu, ezta? Ba, hori irakaskuntzako urte guztietan zehar bananduta eginez, hemen jartzen ditugun ordu horiek baino ordu gehiago ateratzen zaizkigu:

Eskolaurrea + *OHO* = 10 urte

x 32 aste bete x 5 ordu astero: 1.600 ordu

OHO-ko 2. eta 3. mailan = 5 urte

x 32 aste bete x 8 ordu astero: 1.280 ordu

Ikusten denez, jarritako plangintza ez litzateke orduak ugaritzea izango, euskarari eskeintzen zaizkion ordu horiek urte gutxitan bildu eta efikazia handiagoz jokatzeko baino. Alemaniera irakasterakoan halako ondorio onak jaso baldin badira, zergatik ez euskara irakasterakoan? Ez ote litzateke komenigarri Euskal Herriko zenbait lurralde desberdinetan halako probak egitea? Ez ote litzateke euskara «maria» hutsa izatetik benetako ikasgai bihurtzeko bidea?

2. — *Ingurua moldatzean*: Esan bezala inguruak halako eragipen handia izanik, beharrezkoa izango dugu inguru hori hizkuntzaren zerbitzuan jartzeko pausoak ematen saiatzea:

a) Ikastola eta ikastetxe elebidunetan, euskara finkatzeko ekintzak bultzatuz: antzerkiak, kirolak, jaialdiak, iragarriak, ... euskara hutsez eginez.

b) Umeen gurasoei euskara ikastea eskatuz eta (larregi esatea iruditzen baldin bazaizue ere) esijituz, horrek bakarrik eskeiniko dio umeari ikasten ari den hizkuntza finkatzeko bidea eta. Nola uler daiteke, ulertu ere, umea euskaldun egiteko halako plangintzak eta ahaleginak egin eta gero ume hori erdal giro batetan bizitzen behartzea? Euskara ikaste hori, gutxienez, Ikastoletako eta D/B ereduetaiko plangintzetan umeak dituzten gurasoei esijitu beharko zaie.

c) Udalekuetako egonaldiak eta bultzatu eta eskeini, ume horiek udako etenaldian urtean zehar ikasitako euskara galdu ez ezik, sendotu eta indarbarritu dezaten. Honek zeharo erraztuko luke ume horien ahalegin luze eta neketsua.

Azken hitzak

Behar bada beste zenbait ondorio ere atera daiteke ikastetxe horretako eskarmendutik baina ezin, ba, bukaezina egin idazlan hau! Barka ezazue luzeegi atera baldin bazait, asmorik ederrenaz eskeinia duzue eta. Besterik gabe, ba, beste bat arte. Dena dela, jakin ezazue pozik jasoko nituzkela aldizkari honetako sail honetan zuen eritziak. Honetaz zerbait idatzi nahi duzuenok, ba, irekirik dituzue atea.

Patxi Uribarren

LARREZ 2007 400

2007

2007 400

